

## Bildu Hernanik dio Udal Gobernu berriak herriari bizkarra emanda agindu nahi duela

■ Bildu Hernanik salatu du EA-EAJ eta EB alderdiek “kanpainan eta ondorenean egindako promesak” ez dituztela bete eta baliogabetutako botoek ez dutela ordezkartzarrik gaurko Udalean ■ Beren proposamen guztiak erantzunik gabe utzi dituztela ere salatu du Bildu Hernanik.

BILDU Hernani Plataformak prentsaurrekoa eman zuen atzo Biterin eta Udal Gobernu Talde berriaren jarrera salatu zuen. Bildu Hernanik dio Udaletik erabat kanpo dagoela eta Udal Gobernu taldea “Garzonen aginduak” betetzen ari dela “herriak gehien bozkatu zuen zerrenda partehartzeko aukerarik gabe utzi dutelako”. Bildu Hernanik uste du, bai EA-EAJk eta bai EBk “kanpainan eta ondorenean egindako promesak” ez dituztela bete. “Beraz baliogabetutako bozken ordezkartza bermatuko zutela, gestora sortzeko planteamendua etabar egin zituztenean aurpegia garbitzen ari ziren soilik eta gezur hutsa zen dena” esan zuten atzo.



Ixiar Miner eta Aiert Larrarte atzoko Prentsaurrekoan, Biteri kultur etxean.

### Bi Pleno

Ixiar Minerrek hitz egin zuen Bildu Hernaniren izenean eta esan zuen joan den asteleheneko Plenoan han izan zirela. Salatu zuen “publiko be-

zala” parte hartu zutela eta ez ordezkartza duen alderdi bati dagokion bezala. Plenoan “eztabaida sortu zuen puntu bakarra” politikoen soldatei dagokiena izan zela ere salatu

zuen Minerrek, eta “gai horretan zeresan asko egon arren gure ustez ez zen gai garrantzitsua, jokoan dagoen guztiaren aurrean” esan zuen. Horren bueltan galdetu zuen ea

Gobernu Taldeak zergatik ez duen hitz egin nahi “zerrenda bozkatuena Udalean duen egoerari buruz” edo “herriaren gehiengoaren partaidetza nola bermatu behar duten”.

### Zenbait neurriren aurka

Atzoko prentsaurrekoan Udal Gobernu Taldeak hartutako zenbait neurriren kontra ere hitz egin zuten Bildu Hernaniko ordezkariak: “1) Udaletzeko ate nagusia beti itxita egotea eta bai udal zerbitzuetara eta bai plenoetara dijoazen herritarrak atzeko atetik sartu beharra. 2) Udalaren aurreko legealdian buru belarri lanean aritu ziren pertsonak arrotzak bezala hartzea Udal Gobernu honek, eta sartzeko identifikatu beharra sobera ezagutzen gaituzten Udal langileen aurrean. 3) Aldiz herriarentzat ezezagun diren batzuk, bizkartzainak kasu, bere etxean bezala ibiltzen dira Udaletxean. 4) Asteazkenean, Pleno berri bat izan zen, eta urjentziakoa izango zen noski, herritarrak eta bide batez Bildu Hernaniko ordezkariak jakiteko posibilitaterik izan gabe, izan ere ordu pare bat lehenago dei-tua izan zen, beharrezko plazo guztiak aintzakotzat hartu gabe” salatu zuten. □



Euskal Herriko Txapelketako iazko argazkia. Hernanik bigarren egin zuen, baina, orduan ere kejavu zen Baztanen beste herritako pelotariak jokatzeko zutela-eta.

### PELOTA

## Hernani erretiratu egin da Euskal Herriko Herri Arteko Txapelketatik

HERNANI Euskal Herriko Herri Arteko Pelota Txapelketa jokatzeko ari zen, Gipuzkoan bigarren geldituta. Rufino Rekalde delegatuak Kronikari jakinarazi dionez, ordea, erretiratzea erabaki dute, Euskal Herriko Federazioak egin duenarekin ez baitaude konforme. Rekalderen hitzetan aurten jokatzeko deitu dietenean herri guztiak kondizio beretan parte hartuko zutela esan zieten. Alegia, herri bakoitzeko mutilek izango zutela jokatzeko aukera eta ez beste inork (Araba da

espezioa pelotari gutxi dagoelako). Hilaren 6an Baztanen kontra jokatu zuen Hernanik eta 3-0 galdu zuen. Hernanik, ordea, errekurritu egin zuen kanporaketa, Baztanen beste herritakoak ere jokatzeko ari zirelakoan. Hernaniko Pelota Elkar-teak salatu du beraiei ez zaiela erantzunik iritxi federaziotik eta dagoeneko azaldu dela zenbait komunikabideetan Baztan finalean dela. Aste honetan Araiaren kontra jokatu behar zuen Hernanik, baina, erretiratu egin da eta ez du jokatu. □

SEAT ETA OPEL ZERBITZU OFIZIALAK

Autoak SEAT OPEL Auto

URUMEA Autoak - Auto HERNANI

Kotxe berri eta aukerako salmenta  
Tailer mekanikoa eta elektrizitatea

Finantziak  
Karrozeria

Urumea Autoak Akarregi auzoa 25, 943 332274

Auto Hernani Akarregi auzoa 25, 943 552546

INFORMAZIO ETA ERRESERBA EGITEKO DEITU

# JAVREGI

jatetxea

Oporrak eta gero, gaurtik aurrera berriro zabalik.

Menuak, karta, menu bereziak...

Jauregi Bailara, Tel.: 943 550034 / 943 330424  
Hernani (Gipuzkoa)



Gorka Aurre eta Nikolas Garner Ibaiondon azalpenak ematen, joan den asteartean.

## Euskera planak nola egin azaldu zieten Jaurlaritzako adituek enpresetako arduradunei

■ Bai Euskararik antolatuta 20 bat enpresetako arduradunak bildu ziren Jaurlaritzak ematen dituen diru laguntzen berri informatzeko.

HERNANIKO Bai Euskararik antolatuta, Eusko Jaurlaritzako bi ordezkari enpresetan euskera planak egiteko dauden diru laguntzen berri eman zuten joan den asteartean, Ibaiondo industrialdean. Antolatzaileen izenean Lurdes Sarasolak egin zuen aurkezpena eta bere hitzetan Bai Euskarari akordioaren barruan Hernaniko 22 enpresek sinatu zuten euskeraren alde egiteko konpromisoa hasiera batean, eta 15 enprekin izan dituzte bilerak eta markatu dituzte aurrerako helburuak. Georotik, 135 enpresetara bisita egin dute Bai Euskarariko kideek eta beren hitzetan aldeko jarraera eragin dute eta konpromiso batzuk hartzea behar da orain. Horren bueltan antolatu dute Jaurlaritzako diru laguntzak nola lortu jakiteko bilera.

**Euskera balio erantsi**  
Jaurlaritzaren izenean Gorka

Aurrek helburuak eta datu orokorrak azaldu zituen. Lortu behar dena da euskerak enpresako beste faktoreek adinako garrantzia izatea, produkturaren kalitatea, bezeroaren ganako arreta eta abar. Alegia, euskera plana egiteak balio erantsi bat izan behar duela enpresarentzat eta ez zerbait sinbolikoa.

Gaur egun 70 bat enpresak eskatu dute laguntza Jaurlaritzan, euskera plana egiteko. Aurreraren hitzetan helburua askozaz enpresa gehiago sartzea da, nahiz eta laguntzak mugatuak izan. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen % 26 leudeke prest zerbait egiteko eta enpresen % 70ek ez du ezer jakin nahi. Esan zuenez indarra jarri behar da prest dauden enpresei laguntzen, baina, baita ezer jakin nahi ez duten enpresak konbentzitzen eta erakartzen ere.

**Nork bere neurriko plana**  
Jaurlaritzako diru laguntzak lortu ahal izateko 3 kondizio eskatzen dira Nikolas Garnerrek azaldu zuenez. 1) 3 urterako plana egin behar da; 2) Aurten zer garatuko den zehaztu behar da; 3) Aurtengo egitasmoak zein aurrekontu izango duen zehaztu behar da. Eskari orriak betetzeko katalogo bat dago lagungarri. Garnerrek esan zuen enpresa bakoitzak ikusi behar duela zer alorretan eta zein mailatan eraman nahi duen aurrera euskera plana, formula bakarrik ez dagoela, alegia. Lortu beharreko helburuak jartzean helburu errealek jarri behar direla ere esan zuen Garnerrek, helburu errealek eta zehatzak, segimendua egin eta ondorioak atera ahal izateko.

Aurtengo deialdia laster aterako da eta 488.820 euroko diru laguntza dago banatzeko. □

## ■ BOLA

### Joxe Mari Zelarain bigarren Añorgan

KARMENETAKO sari nagusia jokatu da lehengo asteburuan Añorgan, eta hernaniarrak paper ona egin dute berriz ere. Bigarren Elur Txoriko Joxe Mari Zelarain gelditu da 31 brila botata, hirugarren Ur Miako Ibon Miner, hau ere 31 brila botata eta laugarren Antonio Miner, 30 brilarekin. Irabazlea Ategorrietako Joxe Mari Etxebeste izan da, lehen bi hernaniarrek baino brila bat gehiago botata, 32.


Hurrengo tiraldia abuztuaren 3an egingo da Aian eta hernaniarrak bertan izango dira. □



Zelarain bola botatzen.

## Kike Amonarriz gaur AEK euskaltegian

KIKE Amonarriz Txiste kontalari eta umorista tolosarraren emanaldia izango da gaur Hernaniko AEK euskaltegian. AEKn ahozkoikasunari buruzko ikastaroa ematen ari dira eta gaurko emanaldiak emango dio bukaera. Gaur, goizeko 10:00etan AEK euskaltegian, Larramendi kalean.



## Udaleku irekiak antolatu dituzte abuzturako 4-7 urte arteko umeentzat

UDALEKU irekiak antolatu dituzte Hernanin abuzturako, Izen emateko edo informazio gehiagorako 645 717660 telefonora deitu. □

## KARMEN JAIK KAXKOAN



Museko eta eskobako sarituak eta sari emaleak.

## Ander-Joxe Ramon eta Anttoni-Txarli irabazle, Karmenetako karta txapelketan

KARMENAK festa giroan pasatu zituzten asteazkenean, Andre kalean eta Kale Nagusian. Urtero bezala, aurten ere ohihurtari eutsiz karta jokoa izan zen Andre kalean. Eskoban eta Musean aritu ziren, eta irabazleei sariak eman zitzaizkien. Sarituak hauek dira:

Musean Anttoni Legorburu eta Txarli Irazu; eskoban berriz, lehenengoak Ander eta Joxe Ramon Zubillaga, eta bigarrenak Maddi Iradi eta Ane Aierbe.

Sari banaketa asteazken gauetan izan zen, sardina janarekin batean. □

### IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai zentroan. 3 gela dauzka eta berritua dago. Deitu: 943 330 927

Arotz profesionalak etxeko lan txikiak egingo lituzke Hernani inguruan. Behar baduzu deitu: 656 78 64 15 (Kepa)

Bi neska behar ditugu Hernaniko taberna batean sukalde eta zerbitzari lanak egiteko. 25 urtetik gorakoak eta esperientziarekin. Deitu: 943 55 26 94 (Nekane 10:00-15:00 eta 17:30-23:00)

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Bulnes  
Florida auzoa  
☎ 943 557738
- ▶ Gaez: Rodriguez  
Lasarte. Nagusia 42  
☎ 943 361774

### LAN ESKAINTZA

TOPAGUNEAK HONAKO LANPOSTUAK BETETZEKO  
LAN-POLTSA OSATU NAHI DU

BETE NAHI DIREN LAN POSTUAK:  
Kazetari, Publizista, Kudeatzaile, Banaketa arduradun,  
Administrari, Argazkilaria, Zuzentzaile.

ESKATZEN DA:

Euskara ondo menperatzea.  
Dagokion arloan gutxienez 3 urtetako esperientzia.

**Frogak irailean egingo dira.**

Informazio gehiagorako: **Dobera Euskara Elkartera**  
(Larramendi 11) edo deitu 943 33 27 99 ra.